5. Eskaera edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak osatu gabe daudela edo akatsen bat dutela ikusten baldin bada, akatsak zuzendu edo behar diren agiriak ekar ditzan hamar eguneko epea emango zaio eskatzaileari. Epe horren barruan hori egiten ez badu, eskatzaileak eskaera bertan behera uzten duela joko da, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 71.1 artikuluan xedatzen duenari jarraiki eta aurretik hala ebatzita, lege horretako 42.1 artikuluan aurreikusten den bezala.

*8. oinarria. Izapidetzea.*

1. Izapidetzearen hasierako fasean diru laguntza eskaeraren aurre ebaluazio bat egingo da, hau da, Garapen Iraunkorreko Departamentuko idazkaritza teknikoak egiaztatuko du ea eskatzaileak entitate onuradun izateko baldintzak betetzen dituen eta ea aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoen eta zuzena den.

*Base 6. Iniciación del procedimiento de concesión.*

El procedimiento para la concesión de subvenciones será el de concurrencia competitiva con prorrateo y se iniciará de oficio mediante la convocatoria que se realizará anualmente y que será publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Base 7. Presentación de solicitudes.*

1. Las solicitudes se presentarán preferentemente vía Internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, (https://www.gfaegoitza.net), de la que se accederá al portal de subvenciones y se cumplimentará el formulario específico habilitado a tal efecto.

La presentación telemática de solicitudes se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de setiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral y en el Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral.

2. No obstante lo establecido en el apartado anterior, las solicitudes también podrán presentarse por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, cumplimentando debidamente el modelo que será facilitado por el Departamento de Desarrollo Sostenible y firmado por quien ostente la representación legal de la entidad solicitante.

3. Cada entidad solicitante tramitará un máximo de tres solicitudes, acompañadas de la documentación que se establezca en la correspondiente convocatoria. Cuando la solicitud se realice a través de la aplicación informática, la documentación requerida se presentará incorporándola en la misma como documentos anexos.

Así mismo, en caso de carecer de firma electrónica, clave operativa o de algún otro medio de acreditación de la identidad valido para la presentación telemática, la entidad que efectúe su solicitud a través de la citada aplicación informática deberá presentar firmado por quien la represente el impreso en papel de la solicitud. Acreditada la identidad de esta manera, se tomará como fecha válida de presentación la registrada en la aplicación informática.

4. En el caso de que algunos de los documentos exigidos ya estuvieran en poder de cualquier órgano de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la entidad solicitante podrá acogerse a lo establecido en el apartado f) del artículo 35 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, siempre que se haga constar la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, y cuando no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento a que correspondan.

5. Cuando la solicitud o la documentación que debe acompañarla adolecieran de algún error o fueran incompletas, se otorgará a las entidades un plazo de diez días para subsanar los defectos detectados, transcurrido el cual, sin que lo hubieran hecho, se les tendrá por desistidas de su petición, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 42.1 de dicha Ley.

*Base 8. Instrucción.*

1. La fase de instrucción se iniciará con la preevaluación de la solicitud de subvención, que consistirá en la verificación por parte de la Secretaría Técnica del Departamento de Desarrollo Sostenible del cumplimiento de las condiciones establecidas para adquirir la condición de entidad beneficiaria de la subvención y de que la documentación presentada se encuentra completa y es correcta.

2. Ondoren, Ingurumeneko Zerbitzuak beharrezkoak iruditzen zaizkion jarduketa guztiak egingo ditu ofizioz, ebazpen proposamena egin ahal izateko behar diren datuak zehaztu, jakin eta egiaztatzeko.

3. Prozeduraren ebazpen proposamena ebaluazio batzorde batek egingo du. Bertan, Ingurumeneko zuzendari nagusia izango da lehendakari, eta Ingurumeneko zerbitzuburua eta teknikari bat izango dira bokalak; idazkaria, berriz, departamentuko idazkari teknikoa izango da. Horiek denek beste norbaitengan eskuordetu ahal izango dute bakoitzari dagokion egitekoa.

Proposamen hori ikusirik, hamabost laneguneko epea emango da herri administrazioak diren entitate onuradunek, proposatutako jarduna, zati batean edo osotasunean, gauzatzeko behar den aurrekontuaren gaineko atxikipena egin dutela kredita dezaten, dagokion aurrekontu ekitaldiaren kargura.

4. Diru laguntzak emateko, eskaerak elkarrekin erkatuko dira, segidan adierazten diren balorazio irizpideen arabera haien arteko lehentasun hurrenkera ezartzeko. Zenbatekoak 2.2 oinarrian xedatutakoari jarraituz esleituko dira, deialdian ezarritako diru kopuruaren mugaren barnean. Balorazio irizpideak hauek izango dira:

— Aurrerapen Agiriaren helburuen ildoan doazen hiri hondakinen gaineko prebentzioaren eta berrerabilpenaren esparruko ekintzak. Gehienez 50 puntu.

— Aurrerapen Agiriaren helburuen ildoan doazen sentzibilizazio eta komunikazio ekintzak, hiri hondakinen gaineko prebentzioaren eta berrerabilpenaren esparruan. Gehienez 25 puntu.

— Esperientzia zuzentzen zaion populazioa zenbatekoa den, entitate eskatzaileak jarduketa egiteko esparrutzat duen populazio osoaren portzentaje bezala emanda. Gehienez 20 puntu.

— Berritzailea izatea Gipuzkoan edo jarduketa garatuko den esparruan, eta entitate eskatzaileak jarduketa aurrera eramateko behar duen kudeaketa eta koordinazio maila. Gehienez 20 puntu.

— Eskaera, behar den dokumentazio guztiarekin batera, aplikazio informatiko bidez aurkeztea. 10 puntu.

*9. oinarria. Ebazpena.*

1. Garapen Iraunkorreko Departamentuko foru diputatuari dagokio diru laguntzak emateko prozedura ebaztea.

2. Ebazpena eman eta argitaratu edo jakinarazteko gehieneko epea sei hilekoa izango da, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik kontatzen hasita.

3. Aurreko atalean aipatu epea igarotzen bada ebazpena jakinarazi edo argitaratu gabe, interesatuek ulertu ahal izango dute beren eskaerak isiltasun administratiboz ezetsiak izan direla.

*10. oinarria. Diru laguntzak ordaintzea.*

1. Azterketak, zabalkundeko kanpainak eta antzeko jarduerak direnean, ordainketa bakarra egingo da diru laguntza osoari dagokion zenbatekoan, nahiz eta aldez aurretik aurkeztu beharko den 12. oinarrian esaten den zuritzeko dokumentazioa, jarduerak burutzeko 1.6 oinarrian adierazita dagoen epea amaitzen denetik bi hileko gehienezko epean.

2. A continuación, el Servicio de Medio Ambiente realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

3. La propuesta de resolución del procedimiento se efectuará por una comisión evaluadora que será presidida por el director o directora general de Medio Ambiente, siendo vocales de la misma el jefe o jefa del Servicio de Medio Ambiente y un o una técnico/a adscrito/a a dicho servicio, actuando como secretario/a el secretario técnico o secretaria técnica del Departamento, o personas en quienes deleguen.

A la vista de dicha propuesta, se concederá un plazo de quince días hábiles para que aquellas entidades beneficiarias que sean administraciones públicas acrediten haber efectuado, como mínimo, la retención del crédito presupuestario necesario para la ejecución de la actuación propuesta, en parte o en su totalidad, con cargo al ejercicio presupuestario correspondiente.

4. La concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración previstos a continuación, adjudicándose los importes establecidos según lo dispuesto en la base 2.2, con el límite de la cuantía predeterminado en la correspondiente convocatoria:

— Contribución a los objetivos del Documento de Progreso de las acciones en materia de prevención y reutilización de residuos urbanos y su eficiencia en términos coste/beneficio. Hasta 50 puntos.

— Contribución a los objetivos del Documento de Progreso de las acciones de sensibilización y comunicación en materia de prevención y reutilización de residuos urbanos. Hasta 25 puntos.

— Población a la que va dirigida la experiencia, expresada como porcentaje de población del ámbito de actuación de la entidad solicitante donde se propone realizar la actuación.Hasta 20 puntos.

— Carácter innovador en Gipuzkoa o en el ámbito de desarrollo de la actuación propuesta, así como grado de gestión y coordinación requerido para gestionarla por parte de la entidad solicitante. Hasta 20 puntos.

— Presentación de solicitudes junto con toda la documentación requerida a través de la aplicación informática. 10 puntos.

*Base 9. Resolución.*

1. La resolución del procedimiento de concesión corresponde al Diputado o Diputada Foral del Departamento de Desarrollo Sostenible.

2. El plazo máximo para dictar y publicar o notificar la resolución que corresponda será de seis meses computado a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

3. Transcurrido el plazo establecido en el apartado anterior sin haber notificado o publicado la resolución, las personas interesadas podrán entender desestimada su solicitud.

*Base 10. Abono de las subvenciones.*

1. Respecto a las actividades consistentes en la realización de estudios, campañas divulgativas y trabajos similares, el abono de la subvención se realizará en un único pago por el importe total de la misma, previa presentación de la documentación justificativa que se detalla en la base 12 en un plazo máximo de dos meses desde la finalización del plazo de ejecución de la actuación que se señala en la base 1.6.

2. Hala ere, entitate onuradunak eskatuz gero, konturako ordainketak egin ahal izango dira emandako diru laguntzaren %50era arte gehienez ere, aurrekontu erabilgarririk dagoen heinean. Ezinbesteko baldintza izango da txosten bat aurkeztea, jarduketa zenbateraino garatu den azaltzen duena, ordurako bete dena, egiaztatuta, kontuan hartzen duela.

3. Jarduera baldin bada obrak egitea edo ondasunak eskuratzea, diruz lagundutako jardueren obra ziurtagirietako edo fakturetako zenbatekoak ordainduko zaizkie entitate onuradunei, diru laguntzak duen mugara arte.

*11. oinarria. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea.*

1. Diruz lagundutako jarduera burura eramateko behar den portzentajea azpikontrata dakioke hirugarren bati, diru laguntzaren ehuneko ehunera arte. Inoiz ezingo dira azpikontratatu balio erantsirik sortu gabe jarduera diruz lagunduaren kostua gehitzen duten jarduerak.

2. Diru laguntzaren zenbatekoa 60.000 euro baino gehiago baldin bada eta hirugarren batekin hitzartutakoa zenbateko horren %20 baino gehiago, azpikontratatzeko aldez aurreko baimena eman behar du Ingurumeneko zuzendari nagusiak eta idatzizko kontratua egingo da. Kontratuaren xedea ezin da zenbatekoa gutxitu eta baldintza horiek saihesteko zatikatu.

*12. oinarria. Diru laguntzak zuritzea.*

1. Laguntza emateko baldintzak bete direla eta diruz lagundutako jarduerak benetan egin direla zuritzeko, 10. oinarrian adierazitako epean, diruz lagundutako jarduketaren kontu zurigarria aurkeztu behar da. Kontu horretan, zehazki, jardueraren memoria orokorra eta egindako sarreren eta gastuen balantze orokorra jasotzen duen memoria ekonomikoa agertu beharko dira; eta, horrekin batera, diruz lagundutako jarduketak eragindako gastuen fakturen kopia egiaztatuak. Entitate onuraduna administrazio publikoa denean, fakturen kopia egiaztatutakoekin batera organo eskudunak fakturei emandako onarpena aurkeztu behar da. Memoria orokorrean nahitaez azaldu behar da zenbateraino lortu diren eskaeraren azalpenean zehaztutako helburuak, ahal den objektibotasunik handienaz, eta, halaber, entitate onuradunaren iritziz jarduketa azaltzeko behar den informazio osagarri guztia.

2. Administrazio sistemaren bitartez egiten diren jarduketetan, materialen fakturak eta jarduketa diruz lagunduan parte hartzen duten langileen lan-ziurtagiriak (TC1 eta TC2) igorri behar dira nahitaez.

3. Jarduerak finantzatzeko funts propioak edo beste diru laguntza nahiz baliabide batzuk erabili baldin badira, deialdiko diru laguntzaz gain, funts horiek zenbatekoak diren, nondik datozen eta diruz lagundutako jarduerei nola egotzi zaizkien zuritu beharko da.

4. Ondorengo 13.2 oinarrian azaldu kasua gertatzen bada, onuradunak eskatu behar izan dituen 3 aurrekontuak sartu behar dira kontu zurigarri honetan.

5. Organo laguntza-emaileak egiaztatuko du diru laguntza behar bezala zuritu dela, diruz lagundutako jarduera gauzatu dela eta laguntza eman edo hartzeak duen helburua bete dela.

2. No obstante lo anterior, podrá abonarse a cuenta hasta un 50% del importe total de la subvención concedida, a solicitud de la entidad beneficiaria y siempre que lo permita la disponibilidad presupuestaria. Será requisito indispensable la presentación de una memoria en que se indicará el grado de desarrollo de la actuación, que estará ligado al grado de ejecución justificado.

3. Respecto a las actividades consistentes en la ejecución de obras o adquisición de bienes, se abonará a las entidades beneficiarias los importes de las certificaciones de obras o de las facturas de las actuaciones objeto de subvención hasta el límite de la misma.

*Base 11. Subcontratación de las actividades subvencionadas.*

1. Podrá subcontratarse con terceros el porcentaje que resulte necesario para realizar la actividad subvencionada, hasta el 100% de la misma. En ningún caso podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido al contenido de la misma.

2. Cuando la actividad concertada con terceros exceda del 20% del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000 euros, la subcontratación se formalizará en contrato celebrado por escrito que deberá ser autorizado previamente por el director general de Medio Ambiente, no pudiendo fraccionarse el objeto del contrato para disminuir su cuantía y eludir tales requisitos.

*Base 12. Justificación de las subvenciones.*

1. La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la realización efectiva de la actividad objeto de la subvención se documentará mediante la presentación, en el plazo señalado en la base 10, de una cuenta justificativa detallada de la actividad subvencionada, que deberá incluir una memoria general de la actividad y una memoria económica con el balance general de ingresos y gastos habidos, acompañada de la copias autenticadas de las facturas de los gastos generados por la citada actividad subvencionada. En el supuesto de que las entidades beneficiarias sean administraciones públicas, las copias autentificadas de las facturas vendrán acompañadas de la aprobación de las mismas por el órgano competente. La memoria general deberá contener obligatoriamente el grado de consecución de los objetivos planteados en la memoria de la solicitud de la forma más objetiva posible, así como toda la información complementaria que la entidad beneficiaria estime necesaria para su explicación.

2. En aquellas actuaciones que se realicen por el sistema de administración, será preceptiva la remisión tanto de las facturas de materiales como de los certificados laborales de los trabajadores intervinientes (TC1, TC2) adscritos expresamente a la actuación subvencionada.

3. Cuando las actividades hayan sido financiadas, además de con la subvención, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, deberá acreditarse en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

4. Si se da el supuesto contemplado en la base 13.2, se deberán incluir en la justificación los tres presupuestos que debe haber solicitado la entidad beneficiaria.

5. El órgano concedente comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

*13. oinarria. Gastu diruz lagungarriak.*

1. oinarri hauen ondorioetarako, jarduera diruz lagunduarekin zalantzarik gabe bat datozenak dira gastu diruz lagungarriak. Diruz lagundutako elementuen erosketa kostuak ezin dezake inoiz merkatuko balioa baino handiagoa izan.

2. Onuraduna merkataritza sozietate bat edo elkarte bat baldin bada, eta gastu diruz lagungarria obren exekuzio kostuaren ikuspuntutik 30.000 euro baino gehiago baldin bada, edota 12.000 euro baino gehiago baldin bada ondasunen horniduraren edo aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzu prestazioen ikuspuntutik, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik eskaintza bana eskatu behar zaie hiru hornitzaileri gutxienez, non eta diruz lagundutako gastuen ezaugarri bereziei begiratuz ondasuna hornitu edo zerbitzua emateko enpresarik ez dagoen. Administrazio publikoek edo, hala badagokie, merkataritza sozietate publikoek kontratazio administratiboaren arautegiaren arabera jokatuko dute.

3. Ondasun inbentariagarriak eskuratu, eraiki, zaharberritu edo eraberritzen badira, entitate onuradunak ondasun hori laguntza jaso zuen xedera bideratu beharko du bi urtez, eta bost urtez ondasuna erregistro publikoan inskriba daitekeen kasuetan.

4. Finantza gastuak, zuzenbide edo finantza aholkularitzako gastuak, notario eta erregistroko gastuak eta diruz lagundutako proiektua egiteko peritu gastuak eta administraziokoak diruz lagun daitezke, subentzionatutako jarduerarekin zerikusi zuzena badute eta hura prestatu edo egiteko nahitaezkoak baldin badira. BEZa ez da hartuko gastu diruz lagungarritzat.

*14. oinarria. Diru laguntzak itzultzea.*

Jasotako diru kopuruak itzuli egin beharko dira, eta berandutza interesa eskatuko da, diru laguntza ordaintzen denetik itzuli beharra erabakitzen denera artekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 35 artikuluaren 1. eta 3. ataletan ezartzen diren kasuetan. 35.1. artikuluko b), c), d) eta f) letretan aurreikusitako kasuetan, proportzioan finkatu ahal izango da diru laguntzaren zenbateko zatia itzuli beharko den.

*15. oinarria. Diru laguntza emateko ebazpenaren aldaketa.*

Erakunde onuradunek diru laguntza ematen duen organoari eskatu ahal izango diote, diruz lagundutako jarduera zuritzeko epea amaitu aurretik, ebazpena alda dezan finkatutako epeak luzatzeko, emandako diru laguntza murrizteko edo jardueran bildutako ekintzak aldatzeko; ezusteko kausen ondorio direnean edo jardueraren helburua lortzeko beharrezkoak direnean baimenduko dira, betiere diru laguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Organo eskumendunak ebazpena ofizioz aldatu ahal izango du, aurrez erakunde interesatuarekin bilduta eta funtsak aplikatu aurretik, diru laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzeak helburu zen interes publikoa lortzea eragozten edo zailtzen badu eta onuradunari ez bazaizkio kalte ekonomikoak eragiten.

*16. oinarria. Araudi aplikagarria.*

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauek aplikatuko dira: Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, eta horren Erregelamendua, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretu bidez onartutakoa.

*Base 13. Gastos subvencionables.*

1. Se consideran gastos subvencionables a los efectos previstos en estas bases, aquéllos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

2. Cuando la entidad beneficiaria sea una sociedad mercantil o una asociación y el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 30.000 euros en el supuesto de coste por ejecución de obra, o 12.000 euros en el de suministro de bienes o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, se deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten. Las administraciones públicas, y en su caso las sociedades mercantiles públicas, se regirán por la normativa de contratación administrativa.

3. En el supuesto de adquisición, construcción, rehabilitación y mejora de bienes inventariables, la entidad beneficiaria deberá destinar dicho bien al fin para el que se concedió la subvención por un periodo de dos años, que será de cinco años si dicho bien fuera inscribible en un registro público.

4. Los gastos financieros, los gastos de asesoría jurídica o financiera, los gastos notariales y registrales y los gastos periciales para la realización del proyecto subvencionado y los de administración específicos son subvencionables si están directamente relacionados con la actividad subvencionada y son indispensables para la adecuada preparación o ejecución de la misma. El IVA no se considerará gasto subvencionable.

*Base 14. Reintegro de subvenciones.*

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro en los supuestos establecidos en el artículo 35, apartados 1 y 3 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Los supuestos contemplados en las letras b), c), d) y f) del artículo 35.1 podrán graduarse para determinar proporcionalmente el importe parcial de la subvención que deba reintegrarse.

*Base 15. Modificación de la resolución de concesión.*

Las entidades beneficiarias podrán solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la justificación de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceras personas.

El órgano concedente también podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la entidad interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la beneficiaria.

*Base 16. Normativa aplicable.*

Además de lo previsto en las presentes bases, serán de aplicación la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y el Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, por el que se aprueba su reglamento.

II. ERANSKINA

*2011ko deialdia*

*1. Eskaerak aurkezteko epea.*

2011ko diru laguntzetarako eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

*2. Aurrekontu kredituak.*

Deialdi honetako diru laguntzetan 999.000,00 euro emango dira guztira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2011ko Aurrekontu Orokorretan aurreikusi ondorengo partida hauen kontura:

| | |
|---|---|
| 1.0620.210.461.01.02.2011 | 253.000,00 € |
| 1.0620.210.461.02.02.2011 | 125.000,00 € |
| 1.0620.210.470.00.02.2011 | 125.000,00 € |
| 1.0620.210.481.00.03.2011 | 125.000,00 € |
| 1.0620.210.761.01.02.2011 | 9.000,00 € |
| 1.0620.210.761.02.02.2011 | 4.000,00 € |
| 1.0620.210.770.00.02.2011 | 4.000,00 € |
| 1.0620.210.781.00.02.2011 | 4.000,00 € |
| 5.0620.210.461.01.02.2012 | 125.000,00 € |
| 5.0620.210.461.02.02.2012 | 25.000,00 € |
| 5.0620.210.470.00.02.2012 | 25.000,00 € |
| 5.0620.210.481.00.03.2012 | 25.000,00 € |
| 5.0620.210.761.01.02.2012 | 90.000,00 € |
| 5.0620.210.761.02.02.2012 | 20.000,00 € |
| 5.0620.210.770.00.02.2012 | 20.000,00 € |
| 5.0620.210.781.00.02.2012 | 20.000,00 € |

Kopuru hori handitu egin dezake aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak, laguntza ematea ebatzi aurretik, beste deialdi baten beharrik gabe. Dena den, gertatzen denez diru laguntzen bidez gastu arruntak edo inbertsiokoak finantza daitezkeela, jasotako eskaerak eta proiektuetan nagusitzen den gastu mota aztertu ondoren kreditu transferentziak tramitatuko dira, eman behar diren laguntzak diruz lagundutako gastuaren tipologiari egokitzeko.

Edonola ere, kopuru gehigarri hori eraginkorra izango bada, diru laguntza ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratu behar da.

3. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Diru laguntza eskaerak ondorengo agiriekin batera aurkeztuko dira:

a) Diru laguntza jaso ahal izateko, 1. oinarriko 3. eta 4. puntuetan eta 4.1 oinarrian ezarritako aldez aurreko baldintzak betetzen direla frogatzen duten agiriak.

b) Burura eraman nahi den ekintzaren azalpen txostena, nahitaez edukiko dituena lortu nahi diren helburuak, behar bezala kuantifikatuak, ahal izanez gero, dagozkion adierazleekin.

c) Urterokoetan banatutako aurrekontua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetako ekitaldiei eta kapituluei dagokien gastua zehatz-mehatz egozteko adina xehatua.

d) Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezartzen dituen onuradun izateko debeku arrazoietatik salbu dagoela, eta zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela egiaztatzeko agiriak.

ANEXO II

*Convocatoria correspondiente a 2011*

*1. Plazo de presentación de solicitudes.*

Para las ayudas correspondientes al año 2011, el plazo de presentación de solicitudes será de treinta días naturales contados a partir de la publicación de la presente convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*2. Créditos presupuestarios.*

La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 999.000,00 euros distribuidos entre las siguientes partidas de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2011:

| | |
|---|---|
| 1.0620.210.461.01.02.2011 | 253.000,00 € |
| 1.0620.210.461.02.02.2011 | 125.000,00 € |
| 1.0620.210.470.00.02.2011 | 125.000,00 € |
| 1.0620.210.481.00.03.2011 | 125.000,00 € |
| 1.0620.210.761.01.02.2011 | 9.000,00 € |
| 1.0620.210.761.02.02.2011 | 4.000,00 € |
| 1.0620.210.770.00.02.2011 | 4.000,00 € |
| 1.0620.210.781.00.02.2011 | 4.000,00 € |
| 5.0620.210.461.01.02.2012 | 125.000,00 € |
| 5.0620.210.461.02.02.2012 | 25.000,00 € |
| 5.0620.210.470.00.02.2012 | 25.000,00 € |
| 5.0620.210.481.00.03.2012 | 25.000,00 € |
| 5.0620.210.761.01.02.2012 | 90.000,00 € |
| 5.0620.210.761.02.02.2012 | 20.000,00 € |
| 5.0620.210.770.00.02.2012 | 20.000,00 € |
| 5.0620.210.781.00.02.2012 | 20.000,00 € |

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación antes de que se dicte la resolución de concesión, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. No obstante, dado que las ayudas pueden financiar gastos corrientes o de inversión, a la vista de las solicitudes recibidas y en función del tipo de gasto predominante en los proyectos, se tramitarán las transferencias de crédito que resulten procedentes a fin de adecuar las ayudas a conceder a la tipología del gasto subvencionado.

En todo caso, la efectividad de dicha cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de concesión.

3. Documentación a acompañar a la solicitud.

Las solicitudes de subvención se presentarán acompañadas de la documentación que se indica a continuación:

a) Documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos establecidos para optar a la subvención, recogidos en los puntos 3 y 4 de la base 1 y en la base 4.1.

b) Memoria descriptiva de la acción a desarrollar, que obligatoriamente contendrá los objetivos que se pretenden conseguir, debidamente cuantificados, si es posible, con los correspondientes indicadores.

c) Presupuesto desglosado en anualidades, con un grado de detalle suficiente de manera que permita imputar con exactitud a cada uno de los ejercicios y capítulos de los presupuestos de la Diputación Foral de Gipuzkoa su correspondiente gasto.

d) Documentación acreditativa de no concurrir en la entidad solicitante ninguna causa impeditiva de la condición de beneficiaria de las indicadas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como de encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

4.2 oinarrian aipatutako erantzukizunezko adierazpena egin daiteke, nahiz eskaera orriak erantsia duen ereduan, nahiz aplikazio informatikoaren bitartez.

Adierazpen horretako datuen egiaztapena egin ahal izateko, merkataritza sozietateek eta irabazi asmorik gabeko entitateek, beren ordezkari legalen bidez, adierazpenean bertan baimena eman dezakete, espresuki, dagozkion ziurtagiriak egin behar dituzten erakundeek ziurtagirietan agertu beharreko datuak Garapen Iraunkorreko Departamentuari zuzenean eman diezazkioten.

e) Merkataritza sozietateek eta irabazi asmorik gabeko entitateek, beste agiri hauek ere aurkeztu behar dituzte:

— Eraketa eskrituren eta estatutu sozialen kopia, behar izanez gero, erregistro ofizialean inskribatuta.

— Zerga identifikazioko txartelaren kopia.

— Sinatzaileak elkartearen izenean jardun dezakeela egiaztatzen duen agiriaren eta bere nortasun agiriaren kopiak.

— Banku edo aurrezki kutxa baten agiria, eskatzaileak bere izenean kontu korronte bat duela egiaztatzekoa. Laguntza lehen aldiz eskatzen denean edo kontu gorabeherak aldatzen direnean bakarrik aurkeztu behar da agiri hori.

4. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.6.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, diru laguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitarapen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du eta jakinerazpena egintzat ulertuko da lege ondorio guztietarako hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Ez egitea ondorio horiek izateko oztopo izango ez bada ere, erakunde interesdunei ondoko bitartekoren baten edo batzuen bidez ere jakinarazteko saioa egingo da: Ebazpena departamentuko web orrian sartuz, edo posta elektronikoz, telefonoz, faxez.

La declaración responsable a la que hace referencia la base 4.2, podrá hacerse en el modelo anexo al impreso de solicitud o a través de la aplicación informática.

A efectos de la posterior comprobación de los datos de dicha declaración, las sociedades mercantiles y entidades sin ánimo de lucro, a través de sus representantes legales, podrán manifestar en la misma su consentimiento expreso para que las entidades que deben expedir los certificados correspondientes cedan los datos que deban figurar en ellos directamente al Departamento de Desarrollo Sostenible.

e) Las sociedades mercantiles y entidades sin ánimo de lucro deberán presentar además de lo anteriormente indicado:

— Copia de sus escrituras de constitución y estatutos sociales inscritos, en su caso, en el correspondiente registro oficial.

— Copia de la tarjeta de identificación fiscal.

— Copia del documento acreditativo de que quien firma la solicitud puede actuar en nombre de la entidad y, de su DNI.

— Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre. Este documento sólo será necesario presentarlo cuando se solicite una ayuda por primera vez o hayan variado las circunstancias de la cuenta.

4. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 59.6.b) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, la resolución de concesión será objeto de publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación. Sin que la falta de su constancia obste a la producción de dichos efectos, se procurará informar a las entidades interesadas también mediante alguno o algunos de los siguientes medios: Inclusión de la resolución en la página web del departamento, correo electrónico, teléfono, fax.